

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Izan nahi duzu lehenengoa ekitaldi desberdinetaz berri izaten? Ondo pasatu nahi duzu musikaz disfrutatzen? gure aplikazioa aukera onena da. Gure ideia da **festak, kontzertuak, jaialdiak** eta antzeko ekitaldiak biltzen dituen aplikazio bat sortzea. Aplikazioak erabiltzailearen kokalekua kontuan hartuta hurbilen dituen ekitaldien datak eta informazioa erakutsiko ditu. Eremuaren hedapena erabiltzaileak hautatuko du: adibidez, bere herria, eskualdea edo probintzia. Helburua da **inguruan gertatzen ari diren ekitaldiak erraz eta azkar aurkitzea**.

Idea hau sortu zitzaigun, askotan ez ginelako konturatzen inguruan ditugun jai, kontzertu edo festibalei buruz, eta normalean berandu enteratzen gara, jendeak aipatzen dituelako edo sare sozialetan kasualitatez ikusten dugulako. Hori dela eta, **informazio guztia leku bakarrean** izatea oso erabilgarria litzatekeela pentsatu dugu, ezer ez galtzeko eta beti egunean egiteko.

Aplikazioa batez ere jaiak eta ekitaldiak **gustuko** dituzten pertsonentzat dago zuzenduta.

Bi atal nagusi izango ditu:

- **Sarrera-atala:** Zure kokapenaren arabera gertuen dituzun festa eta ekitaldi guztien zerrenda ikusiko duzu, datak eta oinarrizko informazioarekin.
- **Sarreraren gastu-eremua:** Kontzertu eta jaialdietarako **sarrerak** modu seguruan saltzeko eta erosteko plataforma integratua. Horrela, erabiltzaileak aplikazio berean informazioa eta sarrerak lortzeko aukera izango du.

Beste aplikazio batzuetan informazioa bakarrik agertzen bada ere, gureak **sarrerak erosteko eta saltzeko** atal integratu, fidagarri eta seguru bat eskaintzen du. Prezio justua bermatzen du eta iruzurren arriskua murrizten du, erabiltzaileen esperientzia osoagoa eta erosoagoa bihurtuz. Gainera, **premium** atal bat proposatzen dugu sarreretan beherapenekin, festa pribatuak egiteko aukera eta leku bereziak kontzertuetan.

OHARRA: logoa handia da definizioa hobe izateko beste lekuetan itzatz behar bada.



festapp